



EL CALLEJÓN DE LOS MILAGROS

Elkarren halabeharrak lotuta

ALBERTO BARANDIARAN

Film batzuek bidaia zoragarria eskaintzen digute munduan zehar, eta beste batzuek, berriz, istorio konplexu eta itzulinguru askoko narrazioak, zuloz betetakoak. Badira pertsonaia baten inguruan jiratzen duten gidoiak, eta badira ia akzio-rik gabeko narrazio motelak baina esanguratsuak, iradokitzaileak eta gogoangarriak. Badira elkarriketez betetako gidoiak, eta badira isiluneen oihartzuna baliatu nahi duten lanak. Badira izutzen gaituzten istorioak, emozionatzen gaituztenak, hausnartzera laguntzen digutenak. Eta badira kale batetik mugitzen ez diren pelikulak.

Naguib Mahfouzek El Kairoko parte historikoko auzo baten eguneroko bizitza kontatu zuen *Zuqqa al-Midaq* eleberri famatuan (Mirakulu-luen kalexka). Bizitza, kolektibo baten arteko elkarreaginaren ondorio gisa ulertuta, alegia: bizitza, non inguruko guztien ekintzek eta erabakiek gainerakoen bizitzan ere eragina duten, sare ikusezinez lotutako izakiak balira bezala. Horixe izan zen idazle kairotarraren ekarpen handietako bat: errealismo gordina eta, era berean, maitagarria. Errealismo bat, non pertsonaia bakoitza ezinbestez lotuta dagoen gainerakoekin. Hura duzu Jorge Fonsen film honen alderdirik azpimarragarriena: sortu zuela, Mexiko Handiaren auzo tipi-



ko batean, mikromundu bat, kale bereko dozena bat pertsonaien inguruan. Eta, hala ere, haien bizitzen mixeria, poz eta ametsen artean, afan eta bulkada unibertsalak topatu daitezkeela. Ezagunak egiten zaizkigula, ulergarriak. Hurbilak.

Idazle arabiarraren liburuan ageri direnen gisa berean, filmaren pertsonaiak elkarren ondoan bizi dira, nahiz eta itxuraz haien egunerokoak ez duen zerikusirik beste etxekoe-

kiko. Filmean zehar ageriko zaizkigun gizon emakumeak ez dira bi kale harago topatuko ditugunekin alderatuta ezberdinak. Baina, eta hori da zuzendariaren lorpen handienetako bat, bakoitzaren azaleko monotoniaren atzean drama bat ezkututzen da, filmak aurrera egin ahala azaleratzen dena.

Rutilio tabernariak negozio sendoa dauka, diruduna da, baina laster agerraraziko du gaizki kudeatutako

homosexualitate ezkutua, bere familiaren eta bere izen onaren oreka galbidean jarriko duena. Seme premuak, aitaren hipokresiak ezin eramanda, bere onetik aterata denekin hautsi eta Estatu Batuetara alde egingo du, lagun minarekin batera, bizarginarekin, zeinak zeharo maiteminduta dagoen bere etxeko neskato xaloarekin.

Bakoitzaren erabakiak ondorio neurtezinak ekarriko ditu kalean eta

auzoan, domino baten pieza batek gainerako guztien orekari eragiten dion gisa berean. Ondorioz, kaleak perimetratzen duen ingurutik ateratzeko antsiak, beste bizitza desberdin bat edukitzeko gogoak, pasio ezkutua, denak anabasan, kalekideen arteko harremanak berregituratuko eta aldaraziko dituzte.

Filmaren narrazioak hiru ahotsten bidez garatzen da, eta hiruretako bakoitzak badu bere unea, bere tenpoa, bere narrazioa eta bere garapena. Denek alde egin nahi dute kaleak agintzen duen norbere roletik, nola edo hala, baina azkenean denak itzuliko dira kale berera, jaio eta bizi ziren espaziora, halabeharrrak edo patuak (nola ez, film mexikar batean beti ageri baita "patu" hitza) idatzita baitago film honetan. Denak, salbu Alma neskato gaztea, itxuraz kaletik atera eta beste bizitza distiratsuago bat lortzeko aukera gehien zuen pertsonaia izan arren, zorigaiztokoena izango dena.

Une batean, galbidera eramango duen gizonak esan dio neska xarmantari: "Benetako ametsa hemen dago". Neskak sinetsiko dio, ohartu gabe amets hori ez dela berak espero zuena, ez baita berak amestutakoa. Gizonaren ametsa zen. Edo gizarteak, kaleak alegia, egokitu ziona.

Alameda Films eta Labo Digital zaharberritzea.

ZERGATIK PANPOX
ORAINGOZ IZEN GABE

JOXEAN FERNÁNDEZ

Zinemaldiaren 73.edizioak, euskaraz egindako lau film ertainen zaharberritzea aurkezteko balio izan du: *Hamaseigarrenean aidanez* (Anjel Lertxundi, 1985), *Ehun metro* (Alfonso Ungría, 1985), *Zergatik panpox* (Xabier Elorriaga, 1985) eta *Oraingoz izen gabe* (José Julián Bakedano, 1986). 4Kn egindako zaharberritzeak Euskadiko Filategiak gidatu ditu, eta EITBK (Euskal Irrati Telebista) -eskubideen jabea- eta Euskadiko Filategiak finantzatu dituzte, Eusko Jaurlaritzaren babes orokorrarekin. Zaharberritze-prozesuak Bolognako L'Imagine Ritrovata laborategian egin dira berriro, zuzendarien ikuskaritzapean eta oniritziarekin.

Zergatik panpox (Xabier Elorriaga) eta *Oraingoz izen gabe* (José Julián Bakedano) dira gaur protagonistismoa hartzen duten biak. Lehenengoa Irati Filmak enpresaren hiru film ertainen hasierako proiektuaren parte da. Elorriagak Arantxa Urretabizkairen eleberri laburra moldatu zuen, azken hamarkadetako gure idazlerik nabarmenetakoa. Eleberriak, senarrak abandonatu eta la-

Euskarazko lau film ertain aitzindari (II)



Zergatik panpox.

guntzarik gabe semearen zaintzaren ardura hartu duen emakume baten barne-gogoeta eta bakarrizketak kontatzen ditu. Elorriagak, zuzendaritzatik, Arantza Renteriak protagonista gisa egindako interpretazio bikainari etekina ateratzen jakin zuen, baita Hans Burmannen argazkirako eta Pascal Gaigneren eta Amaia Zubiriaren musikarako talentuari ere. Pelikulak oso irakurketa gaurkotua du, feminista, arrastoa uzten du eta ez litzateke harritzekoa izango duela mende erdi baino gehiago Zinemal-

dian aurkeztu zen beste euskaldun batek zuzendutako film luze batekin lotzea: *La femme de Jean* (Yannick Bellon, 1974).

Oraingoz izen gabe (José Julián Bakedano) filmaren kasua desberdina da, ez baitzen Irati Filmak taldearen hirukotearen parte izan. Zuzendari durangarra fikzioaren arloan murgildu zen lehen aldiz, Borgesen "La intrusa" izeneko ipuin labur bat, zinerako moldatu zezala eskatu zion Bernardo Atxagari. Prostituta bat haien bizitzetara iritsitakoan bizikidetza zeharo



Oraingoz izen gabe.

aldatuko zaien bi anaien istorioa da, halako gatazka hirukoitz bat eragiten duena: sexu-identitatea, anaiarteko maitasuna eta generoen aurkakotasuna. Hamar egun eskaseko filmaketa oso azkarra egin behar izan zuten, profesionalak ez ziren aktoreekin, Luis Iriondoren kasuan izan ezik. Eta agian deigarriena Bakedanok zinemaren dramatizatze orduan euskaraz gabeziak izan zitzaizkela zioen hipotesiari kontra egiteko egin zuen ahalegina izan zen. Horretarako, euskaraz ez-normalizatua erabili zuen,

bizkaiera, interpretazioetan naturaltasun handiagoa bilatuz, atmosfera ez batere idiliko eta bortitz batean kontraste joko tirabiratsu bat garatzeko.

Beti esaten dugu zaharberritzea filmei bizitza berria ematea dela, eta hau ez da salbuespena. Film ertain hauek berriro argitara ateratzea, ahalik eta baldintza onenetan ikusi ahal izateko, albiste bikaina da, eta, horren ondorioz, lehendik ezagutzen zituztenek irakurketa berriak egingo dituzte, eta orain aurkitzen dituztenek harritu egingo dira. Euskal zinemak baditu bere klasikoak. Eta klasikoek behin eta berriz erakusten digute film baten modernotasuna ez dagoela filmatua izan zen unearen menpe eta gaiak oso gaur egungoak izan daitezkeela duela berrogei urte baino gehiagoko filmetan.

Joxean Fernández Euskadiko Filategiko zuzendaria da.

Euskadiko Filategiak eta Euskal Irrati Telebistak zaharberrituak L'Imagine Ritrovata laborategietan.